

BILBAO EKINTZA EPEL

IRAGARKIA

Bilbao Ekintza EPEL erakundearen hutsik dagoen lanpostu bat, deialdi bakarra eginda eta oposizio-lehiaketa sistemaren bidez, betetzeko egonkortzeko hautaketa-prozesu bereziko **bigarren ariketaren behin betiko kalifikazioa eta oposizio-fasearen behin betiko kalifikazioa eta betekizunak eta merezimenduak egiaztatzeko epea irekitzea.**

Ekonomia eta Finantza arduraduna izateko lanpostu bat (euskarazko nahitaezko hizkuntza-eskakizunik gabe) jabetzan betetzeko deitu den enplegua egonkortzeko hautaketa-prozesu berezia epaitzeaz arduratu den epaimahaiak honako hau xedatu zuen uztailaren 22an egindako bileran:

Lehenengoa.- Jakinaraztea epe barruan ez dela oposizio-faseko bigarren ariketaren behin-behineko kalifikazioen aurkako erreklamaziorik aurkeztu.

Bigarrena.- Oposizio-faseko ariketetatik BIGARREN ARIKETAN deialdiko oinarrietan jasotako ariketako proba gainditu dutelako GAI suertatu diren hautagaiek lortutako behin betiko kalifikazioa onartzea eta argitaratzea; ariketa hori derrigorrezkoa eta hautagaiak baztertzekoa da, eta gehienez ere 20 puntuko balorazioa du. Zerrenda hori iragarki honekin batera ematen da eta egindako proba horretan EZ GAITZAT jo direnak kanporatu egiten dira.

Hirugarrena.- GAI izan diren hautagaiek deialdiko oinarrietan jasotako ariketak gainditu ondoren OPOSIZIO-FASEKO **behin betiko kalifikazioa** onartzea eta argitaratzea. Zerrenda hori iragarki honekin batera ematen da.

Laugarrena.- OPOSIZIO-FASEAN GAI suertatu diren hautagai guztiei jakinaraztea oinarri espezifikotik ezarritakoarekin bat **eskabideak aurkezteko epean adierazitako LEHIAKETA FASEARI dagozkion betekizun eta merezimenduen**

egiaztagiriak aurkeztu beharko dituztela. Agiri horiek aurkezteko epea 10 egun baliodunekoa da, irailaren 9tik aurrera zenbatuta. Epea 2024ko irailaren 20an amaituko da. Baldintzak eta merezimenduak honela aurkeztu beharko dira:

- a) Modu presentzialean, Bilbao Ekintzako bulegoetan, astelehenetik ostiralera, 08:30etik 14:00etara; bulegoak Nafarroa kalea 5.a, 2. solairuan daude (Giza Baliabideen Saila).
- b) Telematikoki, Erregistro Orokorrean, eskaera egiteko eta dokumentazioa aurkezteko izapidearen bidez, esteka honetan:

<https://www.bilbao.eus/aytoonline/jsp/instanciageneral/login.jsp?idioma=c>

Kanal horretan baldintza hauek bete beharko dira:

- Beharrezkoa da identifikazio elektronikorako bitarteko bat izatea (ziurtagiri elektronikoa edo BakQ).
- Fitxategiak eransteko, honako hauek hartu beharko dira kontuan:
 - Eskaera bakoitzeko fitxategi kopurua, gehienez: 10.
 - Fitxategi bakoitzak gehienez 5MB okupatzea gomendatzen da.
 - Guztira, erantsitako fitxategiek ezingo dute 20MB baino gehiago okupatu.
 - Fitxategiaren izenak ezin ditu izan tildeak, espazioak, puntuak (dokumentu motaren puntu bereizgarria izan ezik: .jpg, .doc, .pdf), ñ letra edo karaktere bereziak (&, %, #, |).
 - Formatu hauek onartzen dira: PDF, DOC, DOCX, JPG, JPEG, ZIP, 7Z.

Prozesuaren legea diren deialdiaren oinarriekin bat etorriz, gogorarazten da bakarrik baloratuko direla berariaz oinarri espezifikoetan ezarritako merezimenduak, aldeztatik aurretik onarpen-eskabidean alegatu direnak eta eskaerak aurkezteko epea amaitu artekoak, hau da, **2023ko azaroaren 6ra arte**.

Bosgarrena.- Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 40. eta 121. artikuluekin bat, administrazio-bidea amaitzen ez duen erabaki honen aurka gora jotzeko errekurtoa aurkeztu ahal izango zaio Bilbao Ekintza EPEL erakundeko Presidentetzari, erabakia argitaratu eta hilabeteko epean. Nolanahi ere, interesdunek bidezkotzat jotzen duten beste edozein errekurto aurkeztu ahal izango dute.

Bilbon, 2024ko uztailaren 22an



EPAIMAHAIKO IDAZKARIA
JOSE IGNACIO RISUEÑO SERRANO

Bigarren ariketaren behin betiko kalifikazioak

EXPTE. BE 2022-EST-0004
EKONOMIA ETA FINANTZA ARDURADUNA
RESPONSABLE ECONÓMICO-FINANCIERO

NAN/DNI	Lehenengo abizena Primer apellido	Bigarren abizena Segundo apellido	Izena Nombre	Guztira Total (20 pt) Min.: 8	
***1*707	DE REGIL	SALZER	ANDREA SARA	18,50	GAI/APTA
*27***67	PERAL	MERINO	MARTA	13,05	GAI/APTA
*063*8**	LAUZIRIKA	URBERUAGA	ITZIAR	8,30	GAI/APTA

OPOSIZIO-FASEAREN behin betiko kalifikazioa

EXPTE. BE 2022-EST-0004							
EKONOMIA ETA FINANTZA ARDURADUNA							
RESPONSABLE ECONÓMICO-FINANCIERO							
NAN/DNI	Lehenengo abizena Primer apellido	Bigarren abizena Segundo apellido	Izena Nombre	Lehenengo ariketa Primer ejercicio	Bigarren ariketa Segundo ejercicio	Guztira Total	
***1*707	DE REGIL	SALZER	ANDREA SARA	33,16	18,50	51,66	GAI/ APTA
*27***67	PERAL	MERINO	MARTA	33,44	13,05	46,49	GAI/ APTA
*063*8**	LAUZIRIKA	URBERUAGA	ITZIAR	26,76	8,30	35,06	GAI/ APTA